

Antonio Casado da Rocha

## Unibertsitateak ur-jauzi modura funtzionatu behar du

Hasieratik bukaeraraino, Joxe Azurmendik uztartu zituen euskara, unibertsitatea eta justizia soziala. *Manifestu atzeratua*-n Euskal Herri «pobrea» defendatu zuen, eta *Azken egunak Gandiagarekin* maisulanean seminarioa «pobreen unibertsitate» bezala deskribatu zuen.

Unibertsitate gizon petoa zen. Ibilbide akademikoa Donostiako EUTGn hasi zuen, eta geroago EHUn jardun zuen Filosofiako katedradun eta saileko zuzendari gisa. 1996an, Mondragon Unibertsitatea sortu baino urtebete lehenago, Arizmendiarrietaren *unibertsitate kooperatiboaren ametsa* goraipatu zuen: ez publikoa, ez pribatua, komunitarioa baizik.

Unibertsitatearekin kritikoa izan zen. Ez zuen nahikotzat jotzen izae-ra publikoa, eta egitura akademikoa zalantzazkoa iruditzen zitzaion. Kritika berretsi zuen Jakinen webguneko biltegi digitalean gordetako solasaldian, non arazoaren muina deskribatu baitzuen: benetako unibertsitate kultura bat ez da sortu gurean; ez ikasleak edo irakasleak txarrak direlako, baizik eta sistemak berak ez duelako kultura akademikorik sorrarazi.

Langilea zen, eta, Europako hainbat unibertsitaterekin esperientziarekin konparatuz, Azurmendik ikusten zuen gurean ez zegoela laneko kontzientziarik: puntualtasunik eza, giro informalegia eta profesionaltasun falta salatzen zituen bere fakultatean –nirea ere badena–. Behin-behineko neurri gisa, solasaldian Azurmendik proposatu zuen unibertsitatea «kuartel» gisa funtzionatzea: estudio ordutegi zorrotzak eta exijentziak ezarri.

Tradizioari jarraituz, Azurmendik unibertsitatea «marfilezko dorre txiki» baten gisara irudikatzen zuen, ingurura «ur-jauzi» modura onurak zabaltzen zituena. Bat nator berak azpimarratu zuen komunitatearen eta kultura akademikoaren garrantziarekin. Hala ere, berak erakutsi

zigun kritikaren garrantzia; hortaz, haren ikuspegia ere gaur egungo unibertsitate-sistemaren testuinguruan berrirakurtzea dagokigu.

Gaur egun, unibertsitatea askoz pluralagoa da, ezagutza arlo eta kultura akademiko ugari barne hartzen ditu. Ez da bidezkoa haren funtzioa ikuspegi bakar eta homogeneo batetik soilik ulertzea. Zientziek, arteek eta filosofiak askatasuna behar dute, eta haien transmisioa ezin da gauzatu kuartel baten moduko zurruntasunez. Horrek ez du esan nahi diziplina akademikoa baztertu behar denik. Agian ez dugu kuartelaren eredia behar, baizik eta kirolarena: *fair play* eta jokabide arduratsua bultzatzea. Bestalde, unibertsitate-kultura sendo bat eraikitzeak ez du bakarrik kontzientzia kritikoa eskatzen; beharrezkoak dira azpiegitura egokiak, baliabide egonkorak eta epe luzerako konpromiso instituzionala. Kultura akademikoa barneratzea eta hedatzea hamarkadak behar dituen prozesua da.

Azurmendi aitzindaria izan zen hizkuntza hegemonikoen nagusitasunaren aurkako kritikan, erakutsiz ez dela derrigorrezkoa ikerketa hizkuntza nagusietan egitea. Jarrera koherente hori gero eta gehiago partekatzen da nazioartean ere, CoARA itunak –EHUk sinatua– adierazten duen moduan: ikerkuntza-ekarpenak ez dira soilik argitalpen akademiko estandarren arabera neurtu behar, eta hizkuntz irizpideek ez dute oztoporik ezarri behar ekarpen baliotsuak aitortzeko.

Joxeren zorroztasuna behar dugu. Baina gurea ez da eredu isolatu bat, baizik eta sare bat: Euskal Herrian diharduten unibertsitate, ikerketa-zentro eta goi-mailako hezkuntza-erakundeen arteko sistema konplexu eta dinamikoa. Horrek ikuspegi sistemikoa eskatzen du, Azurmendiren ekarpenak erreferentzia gisa hartuz, baina aldi berean erronka berriei ere aurre eginez. Horregatik da gaur bereziki baliotsua «ur-jauzi modura» jokatu beharra: ezagutza unibertsitateen artean eta komunitatearekin trukatzuz. Baliabideak mugatuak dira eta sistema auzolan moduan antolatu behar da, sare akademiko-komunitario batean pentsatuz. Horrela, *unibertsitate-sistema kooperatibo batean*, ametsa bete ahal izango da.